

Donostia, 2017ko urriaren 20a

## IDAZKARITZA NAGUSIARI

### KONTROL MOZIOA, SANTA KLARA UHARTEA ERABILTZEA DELA ETA

Irabazi Donostia taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua aintzakotzat hartu, eta KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Santa Klara uhartea erabiltzearen gainean GUNE PUBLIKOEN BATZORDEAN (OBRAK ETA HIRI ZERBITZUAK) aztertutako interpelazioaren ondorioz.

### JUSTIFIKAZIOA

Hil honetako Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak), Gobernuari galdetu genion zergatik ez ziguten bidali abuztuaren 1ean Santa Klara uhartean izandako ezkontzari buruzko espedientearen kopia, gure taldeak 2017ko irailaren 12an eskatu bezala.

Alfonso Gurpegik erantzun zigun ez zegoela ospakizun horretarako gune publikoa okupatzeko espedienterik eta horrexegatik ez zigitela bidali eskatutako kopia. Hala ere, aitortu zuen bazutela ezkontza haren berri, uharteko tabernaren emakidadunaren bidez, baina ezin izan zituztela ospakizunaren antolatzaileak identifikatu.

Ez da Santa Klara uhartean ekitaldi pribatuak egiten diren aurreneko aldia.

- 2010eko abuztuan, garagardo marka batek jai pribatu bat antolatu zuen Aste Nagusian. EAJK horri buruzko interpelazioa egin zuen horren ondorioz.
- 2015eko urrian, beste ezkontza bat izan zen.

Ospakizun horien xehetasun guztiak kontsulta daitezke Interneten:

- <https://www.facebook.com/divinuscatering/posts/1656447597730532>
- [https://www.facebook.com/permalink.php?story\\_fbid=907090259326229&id=107213119313951](https://www.facebook.com/permalink.php?story_fbid=907090259326229&id=107213119313951)
- <http://www.diariovasco.com/gipuzkoa/201510/11/caso-sitio-increible-20151011011850-v.html>

Alegia, gune publiko bat modu pribatuan erabili da, Udalar hartarako baimenik eskatu gabe, eta, nahiz eta udal gobernuak izan duen horren berri eta baduen modua Udaltzaingoari eskatzeko iker dezala zer gertatu den Interneteko informazio publikoa edo uharteko tabernariak emandako informazioa oinarritzat hartuta, ez du ezertxo ere egin. Zoritxarrez, alde batera utzi du bere eginkizuna, gune publikoak ondo erabiltzen direla ziurtatzeko, prebentzioaren eta isunaren bidez. Galdera hauxe sortzen zaigu: zer gertatuko da norbaitek halako beste ospakizunen bat antolatzen badu, eta, esate baterako, suteran bat bada edo norbaitek istripuren bat badu? Nor izango da horren erantzulea?

Horrez gain, galdegu genuen ba al den eskakizun espezifikorik Santa Klara uhartea ekitaldi pribatuarentako erabiltzeko, eta Alfonso Gurpegik erantzun zigun uhartea ez dela uzten jarduera pribatuarentako, non eta ez diren interes orokorrekoak. Uhartean morfologia eta ingurumen aldetik ezaugarri bereziak dituela kontuan hartuta, garrantzitsua iruditzen zaigu ebaluatzea interes orokorreko zer jarduera izan daitezkeen bateragarriak uhartearen berezitasunarekin.

Ez da aurreneko aldia Santa Klara uhartea ekitaldi pribatu baterako erabiltzen dena, ez eta Udal honetan gai hori aztertzen dena ere, eta hau ez da azkeneko aldia izango, baldin eta udal gobernuak ezer egiten ez badu.

Horregatik guztiagatik, hauxe da gure

#### KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari egin ditzala egin beharreko gestioak gai honetan zeresana duten atalekin, zigor espedienteak hasteko bidea izan dadin bidezko izapideak egin gabe Santa Klara uharteko gune publikoak modu pribatuan erabiltzen dituztenen kontra.
2. Donostiako Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari egin dezala txosten bat Santa Klara uhartean ekitaldiak antolatzea bideragarria ote den jakiteko, ingurumen alderdiak ere aintzat hartuta.
3. Donostiako Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari prestatu eta argitara ditzala interes publikorik ez duten ekitaldi pribatuak antolatzea galarazteko neurriak.

Sinatua: Loic Alejandro,  
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia